


EAE-KO EKONOMIAREN AURREIKUSPENAK

Gorantz zuzendu da 2019rako hazkunda

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



Koiunturako adierazle ekonomiko batzuen informazio berriak eta EAEko ekonomiak 2019ko lehen hiruhilekoan duela hiru hileko espero zen baino bilakaera hobea izateak Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak osatu zituen aurreikuspenak berrikustea ekarri dute. BPGaren hazkunderako oraingo aurreikuspenek %2,3an kokatzen dute, urteko batez bestekoan, 2019ko tasa eta hamarren batean goratu dute aurreko hiruhilekoan argitaratu zen zenbakia. Datorren urteari begira, ez da inolako aldaketarik egin eta aurreikuspenak %2,0an jarraitzen du. Hiruhilekoen bilakaera aztertuta, hazkunde egonkorra espero da datozen hiruhilekoetan eta 2019ko laugarren hiruhilekotik aurrera, moteltze arin bat gauzatuko da. Hazkundearen motorra barne eskariaren bizitasuna izango da, familien gastuaren egonkortasunean eta kapital eraketa gordinean oinarrituta.


Azken kontsumoa

Urte arteko aldakuntza tasa




Kapital eraketa gordina


Urte arteko aldakuntza tasa




Industriaren balio erantsia Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia Urte arteko aldakuntza tasa




Zerbitzuen balio erantsia Urte arteko aldakuntza tasa



Hazkundearen lidergoan, eraikuntza eta zerbitzuak egongo dira. Eraikuntzak moteltze biziagoa ezagutuko duela aurreikusten da. Zerbitzu-ek, ordea, bilakaera egonkorragoa izango dutela espero da. Industriak, azkenik, suspertzeko joera erakutsiko du hemendik aurrera, 2018ko azken hiruhilekoan aldakuntza tasa negatiboa jaso eta gero.

Enplegu sorrera %1,7an kokatuko da 2019an eta %1,3an egongo da, berriz, 2020an. Tasa horiek esan nahi dute 16.000 eta 12.500 lanpostu garbi sortuko direla, hurrenez hurren, bi urte horietan. Langabezia tasa berriro jaitsiko da datozen hiruhilekoetan eta %10,0aren azpian egon daiteke 2019ko bigarren seihilekoan.

Enplegua Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia tasa Ehunekoak

